



Arte eta Kultura Industrien
enpresa konfiantza adierazleak

Indicadores de confianza empresarial
de las Artes e Industrias Culturales

2018ko bigarren seiheleko emaitzak eta 2019ko lehen seiheleko aukerak
Resultados del segundo semestre del 2018 y perspectivas para el primer semestre del 2019

2019ko maiatza Mayo de 2019

Aurkibidea

| | |
|---|-----|
| Sarrera..... | 3. |
| Metodologia | 3. |
| Kontsulta panela..... | 3. |
| Denbora-eremua | 4. |
| Datu-bilketa aldia..... | 4. |
| Adierazleen kalkulua..... | 4. |
| | |
| Emaitzak..... | 5. |
| Fakturazioaren bilakaera..... | 5. |
| Egoera | 7. |
| Aurreikuspenak | 10. |
| EKA eta EKAA..... | 13. |
| Enpresa jardueran eragiten duten faktoreak..... | 15. |
| Giza baliabideak..... | 17. |

Índice

| | |
|--|-----|
| Introducción..... | 3. |
| Metodología | 3. |
| Panel de consulta | 3. |
| Ámbito temporal..... | 4. |
| Período de recogida de datos | 4. |
| Cálculo de indicadores | 4. |
| | |
| Resultados..... | 5. |
| Evolución de la facturación..... | 5. |
| Situación..... | 7. |
| Expectativas | 10. |
| ICE e ICEA..... | 13. |
| Factores limitadores de la actividad | 15. |
| Recursos humanos | 17. |

Sarrera

Kulturaren Euskal Behatokiak (KEB-OVC) Arte eta Kultura Industrien sektoreko Enpresa Konfiantza Adierazleen inguruan (EKA) egindako seigarren estatistikari dagokion txostena da hau. Helburu nagusia, sei hilean behin Arte eta Kultura Industriek negozioaren egungo egoeraz eta epe laburrerako aurreikuspenez dituzten pertzepzioak ezagutzea da.

Edizio honetan ere, panelaren aurreneko ediziorako osatutako enpresa kolaboratzaileen panel bera izan da abiapuntua. Panel horren bitartez jasotako datuekin, kultura sektore ezberdinen egoera eta aurreikuspen adierazleak kalkulatu dira. Ondorengo sektoreak hartu dira kontuan panela osatzerako garaian: Arte eszenikoak, Liburugintza, Musika, Ikusizko arteak eta Ikus-entzunezkoak.

Adierazleen kalkulurako metodologia, Estatistikako Institutu Nazionalak enpresa konfiantza neurtzeko erabiltzen duen bera da. Adierazle horiez gain, giza baliabideen inguruko informazioa ere biltzen da: enpresan lan egiten duen pertsona kopurua eta enpresan ardura duten pertsona kopuruaz galdetu zaie; beti ere, emakumezko eta gizonezkoen arteko bereizketa eginez.


Metodologia

Kontsulta panela

Panelaren lehen ediziorako osatutako 70 enpresen lagin adierazgarritik abiatu gara; panel hori ondorengo aukeraketa irizpideei jarraiki osatu zen: sektorea eta enpresaren tipologia, fakturazioa eta lurraldea. Estatistikaren seigarren edizio honetan, guztira 68 enpresen informazioa bildu da. Aurreko edizioetan bezala, informazio biltetarako lanak Siadeco enpresak egin ditu.

| Kultura sektorea | Establezimenduak |
|-------------------|------------------|
| Arte eszenikoak | 12 |
| Ikus-entzunezkoak | 12 |
| Ikusizko arteak | 6 |
| Liburugintza | 18 |
| Musika | 20 |
| Guztira | 68 |

Paneleko parte hartzaile kopuruaren bilakaera estatistikaren edizio ezberdinetan:



Introducción

Este es el informe de la sexta estadística de Indicadores de Confianza Empresarial de las Artes e Industrias Culturales (en adelante, ICE) realizada por el Observatorio Vasco de la Cultura (KEB-OVC). El objetivo principal de esta estadística es conocer semestralmente las percepciones que los establecimientos de las Artes e Industrias Culturales tienen en torno a la situación actual del negocio y sobre las expectativas a corto plazo.

Para esta edición se ha vuelto a consultar al panel de establecimientos colaboradores conformado para la primera edición del panel, y a través de los datos obtenidos mediante ese panel de consulta, se han calculado los indicadores ICE de los diferentes subsectores culturales: Artes escénicas, Libro, Música, Artes visuales y Audiovisual.

La metodología aplicada, corresponde a la que utiliza el Instituto Nacional de Estadística para el cálculo de indicadores de confianza empresarial. Además de esos indicadores también se recopila información relativa al personal que trabaja en los establecimientos: el número de personas que trabaja en la empresa, y el número de personas que ocupa cargos de responsabilidad en la toma de decisiones, diferenciando entre mujeres y hombres.

Metodología

Panel de consulta

Se ha partido de la muestra estratégica de la primera edición del panel compuesta por 70 establecimientos. Dicha muestra se configuró utilizando estos criterios de selección: sector y tipología de empresa, facturación y territorio. En la presente edición de la estadística en total se ha recabado información de 68 empresas. Como en las pasadas ediciones, la recogida de datos lo ha desarrollado la empresa Siadeco.

| Sector cultural | Establecimientos |
|-----------------|------------------|
| Artes escénicas | 12 |
| Audiovisual | 12 |
| Artes visuales | 6 |
| Libro | 18 |
| Música | 20 |
| Total | 68 |

Evolución de participantes del panel en distintas ediciones de la estadística:

Denbora eremua

Seigarren kontsulta honetako adierazleak, 2018. urteko bigarren seihilekoari eta 2019. urteko lehen seihilekoari dagozkio.

Datu bilketa aldia

Edizio honetako datu bilketa 2019ko otsailaren 11an hasi zen eta 2019ko martxoaren 22an amaitu zen.

Adierazleen kalkulua

Adierazle bakoitzaren saldoa

Erantzun baikorren eta ezkorren portzentajeen arteko aldea da.

Egoera balantzea

Negozioaren emaitza ekonomikoaren inguruko erantzunetik abiatuta kalkulatzen da. Amaitu berri den seihilekoari buruzko erantzun baikorren eta ezkorren portzentajeen arteko saldoa edo aldea da.

Aurreikuspenen balantzea

Negozioaren emaitza ekonomikoaren inguruko erantzunetik abiatuta kalkulatzen da. Hasi berri den seihilekoari buruzko erantzun baikorren eta ezkorren portzentajeen arteko saldoa edo aldea da.

Enpresa Konfiantza Adierazlea (EKA) eta Enpresa Konfiantza Adierazle Armonizatua (EKAA)

Negozioaren emaitza ekonomikoaz galdetuta lortutako emaitzetan oinarrituta kalkulatzen dira. EKA egoera saldoa eta aurreikuspenen saldoaren batez besteko geometrikoa da, emaitzak normalizatuta.

EKAtik abiatuta EKAA kalkulatzeko, oinarritzat 2015eko lehen seihilekoa hartzen da.

Kalkuluaren xehetasunak ondorengoak dira:

Enpresa Konfiantza =

$$= EKA = \sqrt{(Egoera + 200) \times (Aurreikuspenak + 200)} - 200$$

Enpresa Konfiantza Adierazle Armonizatua =

$$= EKAA = \frac{EKA+200}{EKA1Seihil2015+200} \times 100$$

Desestacionalizazioa

Adierazleen kalkulurako ez da desestacionalizaziorako teknika zehatzik aplikatzen, baina galdetegian, erantzunak urte sasoia kontuan hartuta emateko beharrezkoak diren oharrak sartu dira; hau da, negozioaren emaitza ekonomikoaren balorazioa baikorra da, bere jarduera aurreko urteko seihileko berdinarekiko igotzen bada.

Ámbito temporal

Los indicadores de ésta sexta consulta, corresponden al segundo semestre del 2018 y al primero del 2019.

Periodo de recogida de datos

La recogida de datos de esta edición empezó el 11 de febrero de 2019 y finalizó el 22 de marzo de 2019.

Cálculo de indicadores

Saldo de cada variable

Se calcula como la diferencia entre el porcentaje de respuestas favorables y el porcentaje de respuestas de desfavorables.

Balance de Situación

Se obtiene a partir de la respuesta a la pregunta sobre el resultado económico del negocio. Se trata del saldo o diferencia entre el porcentaje de respuestas favorables y el de desfavorables, referida al semestre que acaba de finalizar.

Balance de Expectativas

Se obtiene a partir de la respuesta a la pregunta sobre el resultado económico del negocio. Se trata del saldo o diferencia entre el porcentaje de respuestas favorables y el de desfavorables, referida al semestre que acaba de comenzar.

Indicador de Confianza Empresarial (ICE) e índice de Confianza Empresarial Armonizado (ICEA)

Se construyen a partir de la respuesta a la pregunta sobre el resultado económico del negocio. El ICE es la media geométrica del saldo de situación y del de expectativas, normalizando adecuadamente los resultados.

Partiendo del ICE el ICEA se calcula cogiendo como período base el primer semestre de 2015.

Los detalles del cálculo son los siguientes:

Confianza empresarial =

$$= ICE = \sqrt{(Situación + 200) \times (Expectativas + 200)} - 200$$

Índice de Confianza empresarial armonizado =

$$= ICEA = \frac{ICE+200}{ICE1Sem2015+200} \times 100$$

Desestacionalización

No se aplica ninguna técnica específica de desestacionalización en el cálculo de los indicadores, si bien en el cuestionario se incluye una nota para que se respondan las preguntas considerando la estacionalidad de la actividad del establecimiento; es decir, la valoración del resultado económico del negocio en un semestre es favorable si su actividad aumenta respecto al mismo semestre del año anterior.

Emaitzak

Negozioaren fakturazioaren bilakaera

Negozioaren fakturazioaren bilakaerak aurreko seihilekoarekiko alderaketa kontuan izanda, emaitza positiboa eman du.

2018ko bigarren seihilekoan eta aurreko seihilekoarekin alderatuta (2018ko lehen seihilekoa) Arte eta Kultura Industrietako enpresen fakturazioaren bilakaera saldoa ia 49 puntukoa da. Hau da, beren negozioaren fakturazioa igo egin dela esan duten enpresak fakturazioa jaitzi egin dela esan dutenak baino gehiago izan dira; zehazki, establezimenduen % 60ak fakturazioa aurreko seihilekoarekiko igo egin dela adierazi du eta % 12 izan dira jaitzi egin dela esan dutenak.

Aurreko edizioetako joerari jarraituz, oraingoan ere urteko bigarren seihilekoko emaitzak positiboak izan dira; berriz ere datuetan estacionalizazioak duen eraginaren erakusle. Aipagarria da gainera, panelaren edizio honetan ez dagoela fakturazioaren bilakaera saldo negatiborik aurreko seihilekoarekiko emaitzei dagokienean.

Datuak sektoreka aztertuta, emaitza positiboan dituzten sektoreak Musika eta Liburugintzan dira (65 eta 56 punturekin, hurrenez hurren). Bi sektore horietan aurreko seihilekoarekiko fakturazioa igo egin dela adierazi dute 10 enpresetatik 7k baino gehiagok. Ikusizko arteen sektorean negozioaren fakturazioaren saldoa hain positiboa ez bada ere, aipagarria da sektore honetan aurreko seihilekoarekiko fakturazioa jaitzi egin dela adierazi duen enpresarik ez dela egon.

Fakturazioaren batz besteko igoera guztira % 131koa izan da; igoera hori bereziki altua da Ikus-entzunezkoetan (% 584). Batz besteko jaitziera berriz % 16koa izan da.

Resultados

Evolución de la facturación del negocio

La consulta sobre la evolución de la facturación del negocio arroja resultados positivos en cuanto a la evolución respecto al semestre anterior.


El saldo de la evolución de la facturación del segundo semestre del 2018 respecto al semestre anterior (primer semestre del 2018) de las empresas de las Artes e Industrias Culturales es de casi 49 puntos. Es decir, las empresas que han indicado que la facturación del negocio ha aumentado superan a las que han indicado que la facturación ha disminuido; el 60% de las empresas ha señalado un aumento de la facturación respecto al semestre anterior, mientras que el 12% una disminución.

Los resultados del segundo semestre del año siguen siendo positivos, siguiendo la tendencia de ediciones anteriores; otra vez se observa que la estacionalización incide directamente en los resultados. Además, cabe destacar que en la presente edición del panel no se ha dado ningún saldo negativo en cuanto a la evolución de la facturación del negocio respecto al semestre anterior.

Analizando los datos por sector, Música y Libros son los sectores que han obtenido los resultados más positivos (con 65 y 56 puntos, respectivamente). En ambos casos más de 7 de cada 10 empresas han indicado que la facturación respecto al semestre anterior ha aumentado. En el sector de Artes visuales, aunque el saldo no haya sido tan positivo, cabe destacar que no ha habido ninguna empresa que ha indicado que su facturación respecto al semestre anterior ha disminuido.

El porcentaje de aumento de facturación media ha sido de 131%; este aumento ha sido especialmente relevante en el sector de Audiovisuales (584%). La disminución media ha sido del 16%.

Negozioaren fakturazioaren saldoaren bilakaera aurreko seihilekoarekiko - Evolución del saldo de facturación respecto semestre anterior



Iturria-Fuente: Siadeco, 2019.

Erreferentzia aldia - Período de referencia: I/2018

| | Arte eszenikoak/Artes escénicas | Ikus-entzunezkoak/Audiovisual | Ikusizko arteak/Artes visuales | Liburugintza /Libro | Musika/Música | Guztira/Total |
|--------------------------------------|---------------------------------|-------------------------------|--------------------------------|---------------------|---------------|---------------|
| Igo egin da/Ha aumentado (%) | 41,67 | 50,00 | 33,33 | 72,22 | 75,00 | 60,29 |
| Mantendu egin da/Se ha mantenido (%) | 25,00 | 33,33 | 66,67 | 11,11 | 25,00 | 26,47 |
| Jaitzi egin da/Ha disminuido (%) | 25,00 | 16,67 | 0,00 | 16,67 | 10,53 | 11,76 |
| Saldoa (puntuak) /Saldo (puntos) | 16,67 | 33,33 | 33,33 | 55,56 | 64,47 | 48,53 |

Iturria-Fuente: Siadeco, 2019.

Igoera/jaitsiera % – % de aumento/descenso: I/2018

| | Arte eszenikoak/Artes escénicas | Ikus-entzunezkoak/Audiovisual | Ikusizko arteak/Artes visuales | Liburugintza/Libro | Musika/Música | Guztira/Total |
|--|---------------------------------|-------------------------------|--------------------------------|--------------------|---------------|---------------|
| Batez besteko igoera %/% de aumento medio | 25,2 | 583,6 | 62,5 | 24,1 | 35,0 | 130,5 |
| Batez besteko jaitsiera %/ % de descenso medio | 9,7 | 28,0 | - | 12,5 | - | 15,7 |

Iturria-Fuente: Siadeco, 2019.

Aurreko urteko seihileko berdinarekiko (2017ko bigarren seihilekoa) negozioren fakturazioaren bilakaeraren saldoa 0 puntukoa da. Hau da, erreferentzia aldi horrekiko fakturazioa igo egin dela eta jaitsi egin dela adierazi duen enpresa kopurua berdina izan da panelaren seigarren edizio honetan (enpresen %35 erantzun modalitate bakoitzerako).

Fakturazioaren batez besteko bilakaera portzentajeari dagokionean, fakturazioa igo egin dela adierazi duten enpresetan, igoera hori % 34koa izan da batzaz beste. Fakturazioa jaitsi egin dutela adierazi duten enpresetan, berriz, jaitsiera batzaz beste % 20koa izan da.


Sektorekako emaitzei dagokionean: aurreko urtearekiko bilakaera saldoa positiboa izan da Ikusizko arteak (33 puntu), Musika (10 puntu) eta Arte eszenikoak sektoreetan (8 puntu). Aurreko urtearekiko bilakaera saldoa negatiboa izan da Liburugintza (-22 puntu) eta Ikus-entzunezkoak (-8 puntu) sektoreetan. Bi sektore horietan 10 enpresatik 4k baino gehiagok fakturazioaren bilakaera negatiboa izan dela adierazi du.

El saldo de evolución de la facturación respecto al mismo semestre del año anterior (segundo semestre del 2017) es de 0 puntos. Es decir, el número de empresas que ha indicado que la facturación ha aumentado respecto al año anterior es el mismo que el número de empresas que ha indicado que la facturación ha disminuido (el 35% de las empresas para cada modalidad de respuesta).

En cuanto a la evolución del porcentaje de facturación, en las empresas cuya facturación ha aumentado, el aumento medio ha sido del 34%. En las empresas que han indicado que su facturación ha disminuido, el descenso medio ha sido del 20%.

Por sectores: la evolución de la facturación respecto al año anterior ha sido positivo en Artes visuales (33 puntos), Música (10 puntos) y Artes escénicas (8 puntos). El saldo de evolución de la facturación ha sido negativo en el sector del Libro (-22 puntos) y en Audiovisuales (-8 puntos). En estos dos sectores más de 4 de cada 10 empresas han indicado que la evolución de la facturación ha sido negativa.

Negozioren fakturazioaren saldoaren bilakaera aurreko urtearekiko - Evolución del saldo de facturación respecto año anterior



Iturria-Fuente: Siadeco, 2019.

Erreferentzia aldia – Periodo de referencia: II/2017

| | Arte eszenikoak/Artes escénicas | Ikus-entzunezkoak/Audiovisual | Ikusizko arteak/Artes visuales | Liburugintza/Libro | Musika/Música | Guztira/Total |
|--------------------------------------|---------------------------------|-------------------------------|--------------------------------|--------------------|---------------|---------------|
| Igo egin da/ha aumentado (%) | 41,67 | 33,33 | 50,00 | 22,22 | 40,00 | 35,29 |
| Mantendu egin da/Se ha mantenido (%) | 16,67 | 25,00 | 33,33 | 33,33 | 30,00 | 27,94 |
| Jaitsi egin da/ha disminuido (%) | 33,33 | 41,67 | 16,67 | 44,44 | 30,00 | 35,29 |
| Saldoa (puntuak) /Saldo (puntos) | 8,33 | -8,33 | 33,33 | -22,22 | 10,00 | 0,00 |

Iturria-Fuente: Siadeco, 2019.

Igoera/jaitsiera % – % de aumento/descenso: II/2017

| | Arte eszenikoak/Artes escénicas | Ikus-entzunezkoak/Audiovisual | Ikusizko arteak/Artes visuales | Liburugintza/Libro | Musika/Música | Guztira/Total |
|--|---------------------------------|-------------------------------|--------------------------------|--------------------|---------------|---------------|
| Batez besteko igoera %/% de aumento medio | 20,0 | 111,0 | 40,0 | 3,4 | 27,3 | 34,1 |
| Batez besteko jaitsiera %/ % de descenso medio | 18,8 | 23,4 | 15,0 | 5,3 | 33,8 | 20,1 |

Iturria-Fuente: Siadeco, 2019.

Egoera: amaitu den seihelekoaren inguruko balorazioa

Arte eta Kultur Industrien paneleko inoizko emaitza ekonomikoen inguruko ikuspeirik positiboena agertu dute enpresek edizio honetan. Datuak orokorrean aztertuta, aurreko edizioetan ere ikuspegi positiboa gailentzen zen arren, oraingo honetan egoeraren inguruko balorazioaren saldoa inoizko positiboena izan da, 22 puntuko saldoarekin (aurreko edizioarekiko saldoaren igoera ia 14 puntukoa izan da). 2018ko bigarren seihelekoaz galdetzean erantzuna baikorra izan da % 42an eta ezkorra %20an. Erantzunen baikorren bilakaerak positiboa izaten jarraitzen du, eta ezkorrena jaitsi egin da azken edizio honetan (inoizko baliorik baxuena izanik). Hala ere, erdiko multzoan kokatzen den enpresa portzentajeak (balorazio normala egiten duten enpresak) altua izaten jarraitzen du, eta edizioz edizio nahiko konstante mantentzen dela esan daiteke (enpresen % 39k eman du erantzun hori edizio honetan).

Arte eszenikoen sektorea gailentzen da egoerari buruzko ikuspegi positiboan, 91 puntuko saldoarekin. Saldo hau Arte eta Kultur Industrien panelean egoeraz galdetuta inoiz lortu den saldorik positiboena da. Ikusizko arteak sektorean eta Ikus-entzunezkoetan ere emaitzen saldoak positiboak dira (33 eta 27 puntu, hurrenez hurren).

Lehen aldia da Musika sektorean egoeraz galdetuta emaitza positiboa lortu dena: egoera baikorra izan dela adierazi duen enpresa portzentajea ezkorra izan dela adierazi dutenena baino 5 puntu altuagoa izan da.

Saldo negatiboa duen sektore bakarra Liburugintza da (-12 puntu), aurreko edizioan hasitako joera ezkorra mantentzen delarik sektorean.

Situación: valoración empresarial del semestre saliente


En la presente edición la visión de las empresas sobre la situación de la empresa en el semestre saliente, ha sido la más positiva de todas las ediciones del panel. Aunque en pasadas ediciones la visión haya sido positiva en general, en esta edición el saldo de valoración de la situación ha sido más elevado que los saldos de pasadas ediciones: de 22 puntos (aumenta en 14 puntos respecto al saldo de la edición anterior). En el 42% de las empresas, la respuesta ha sido positiva al preguntar por el segundo semestre del 2018, y negativa en el 20%. La evolución de valoraciones positivas sigue en aumento, y en cambio ha disminuido el porcentaje de respuestas negativas (siendo el más bajo de todas las ediciones). El número de empresas que se sitúa en valores intermedios sigue siendo elevado, y se puede decir que se mantiene bastante constante de edición a edición (el 39% de las empresas se sitúa en este grupo).

Las empresas del sector de las Artes escénicas han obtenido los saldos más positivos: con un saldo medio de 91 puntos. Este saldo es el saldo más positivo en cuanto al balance de situación de todas las ediciones del panel. Los sectores Artes visuales y Audiovisuales también han obtenido saldos positivos (33 puntos y 27 puntos, respectivamente).

Es la primera vez que el saldo de situación del sector Música es positivo: el porcentaje de empresas que ha indicado que la situación ha sido favorable supera en cinco puntos al porcentaje de las empresas que ha indicado que la situación ha sido desfavorable.


El sector del Libro es el único sector con saldo negativo (-12 puntos); se mantiene la tendencia negativa iniciada en la pasada edición.

Egoera saldoa - Saldo de situación



Iturria-Fuente: Siadeco, 2019.

Egoera - Situación



Iturria-Fuente: Siadeco, 2019.

Egoera balantzea – Balance de situación: II/2018

| | Arte eszenikoak/ Artes escénicas | Ikus-entzunezkoak/ Audiovisual | Ikusizko arteak/ Artes visuales | Liburugintza /Libro | Musika/ Música | Guztira/ Total |
|----------------------------------|-------------------------------------|-----------------------------------|------------------------------------|------------------------|-------------------|-------------------|
| Baikorra/Favorable (%) | 90,9 | 27,3 | 50,0 | 23,5 | 35,0 | 41,5 |
| Normala/Normal (%) | 9,1 | 72,7 | 33,3 | 41,2 | 35,0 | 38,5 |
| Ezkorra/Desfavorable (%) | 0,0 | 0,0 | 16,7 | 35,3 | 30,0 | 20,0 |
| Saldoa (puntuak) /Saldo (puntos) | 90,9 | 27,3 | 33,3 | -11,8 | 5,0 | 21,5 |
| Saldoa/Saldo II/2016 | 50,0 | 41,7 | -20,0 | -11,8 | -15,8 | 7,7 |
| Saldoa/Saldo I/2016 | 15,4 | 36,4 | -60,0 | 22,2 | 0,0 | 10,6 |
| Saldoa/Saldo II/2015 | -15,4 | 8,3 | -16,7 | 50,0 | -21,1 | 4,4 |
| Saldoa /Saldo I/2015 | 7,7 | 0,0 | 20,0 | 11,8 | -40,0 | -6,1 |
| Saldoa /Saldo II/2014 | 15,4 | 15,4 | -33,3 | 11,1 | -25,0 | -1,4 |

Iturria-Fuente: Siadeco, 2019.

Negoioan eragiten duten aldagai desberdinen bilakaeraren balorazioari dagokionean, ia enpresen erdiak (%48) EAE mailako salmentak igo egin direla adierazi du. Aurreko edizioarekiko aldagai hau jaitسي egin da, eta aldiz, EAEko salmentak jaitسي egin direla dioten enpresen ehunekoa igo egin da (%21).

Estatuko gainerako salmentei dagokienean, mantendu egin direla diotenen ehunekoa gailentzen da (%40); hala ere, igo egin da salmenta hauek igo egin direla diotenen ehunekoa.

Atzerriko salmentei dagokienean ere, mantendu egin direla diotenak gailentzen dira (%63).

Enpleguari dagokionean ere, mantentzeko joera erakusten du berriz ere: 4 enpresatik 3k hori adierazi baitu panelaren edizio honetan (%75).

Kostuak igo egin direla aipatu duten enpresen ehunekoa inoizko altuena da (%40).

Beraz, egoeraren pertzepzioan ikuspegi baikorra gailendu arren, badirudi negozioan eragiten duten faktoreek bilakaera ezkorra dutela (salmentak igo egin direla diotenen ehunekoa jaitسي egin baita eta kostuak igo direla diotena, igo).

En cuanto a la valoración de los principales factores que inciden en la marcha del negocio, casi la mitad de las empresas (48%) ha indicado que las ventas a nivel de la CAE han aumentado. Este indicador a ha bajado desde la pasada edición, y en cambio ha aumentado el porcentaje de empresas que ha indicado que las ventas a nivel de la CAE han disminuido (21%).


En cuanto a las ventas a nivel estatal, destaca el porcentaje de empresas que han indicado que estas ventas se han mantenido (40%). A su vez, aumenta el porcentaje de empresas que ha señalado que estas ventas han aumentado en el semestre.

En cuanto al empleo, otra vez tiende a mantenerse: 3 de cada 4 empresas han respondido que se mantiene esta variable (75%).

El porcentaje de empresas que ha indicado que los costes han aumentado, es el mayor porcentaje obtenido hasta ahora en todas las ediciones del panel (40%).

Por lo tanto, como hemos visto aunque predomine una visión positiva en cuanto a la situación del semestre saliente (segundo semestre de 2018), los factores que inciden en la marcha del negocio muestran una tendencia negativa (disminuye el porcentaje de empresas que ha indicado que las ventas han aumentado y aumenta el porcentaje de los que indican que los costes han subido).

Aldagaien bilakaera - Evolución de los indicadores



Iturria-Fuente: Siadeco, 2019.

Aurreikuspenak: hasi den seihiilekoaren inguruko balorazioa

2019ko lehen seihiilekorako aurreikuspen saldoa negatiboa da arte eta kultur enpresez osatutako panelisten artean. Hau da, 2019ko lehen seihiilekorako espektatiba ezkorrek dituzten enpresak espektatiba baikorrek dituztenak baino gehiago dira.

Zehazki saldo hori -9 puntukoa izan da panelaren seigarren edizio honetan. Urtearen lehen seihiilekorako aurreikuspen baikorrek dituzte enpresen % 20k, eta ezkorrek dituztenen portzentajea % 30ekoa da. Panelari erantzun dioten enpresen erdiak, aurreikuspenez galdetuta normalak direla erantzun dute. Edizioz edizio mantendu egiten da tarteko jarrera hartzen duen enpresen multzoa, % 50aren bueltan ibiltzen delarik kopuru hori.

Datuak orokorrean hartuta aurreikuspen saldoa negatiboa bada ere, egoera ez da berdina sektore guztietan. Honela, Ikusizko Arteak, Liburugintza eta Musika sektoreak saldo negatiboak izan dituzte (-33 puntu, -31 puntu eta -10 puntu, hurrenez hurren) eta Ikus-entzunezkoak eta Arte eszenikoak sektoreek positiboak (18 puntu eta 9 puntu, hurrenez hurren).

Saldoaren bilakaera aztertuta, 2019ko lehen seihiilekorako enpresek dituzten espektatibak, aurreko edizioan lehen seihiilekorako zituzten espektatibak baino baikorragoak dira (eta duela hiru edizioko lehen seihiilekoarekiko zituztenak baino baikorragoa).

Expectativas: valoración empresarial del semestre entrante


En cuanto a las expectativas o las previsiones para el primer semestre del 2019 el saldo vuelve a ser negativo. Es decir, el número de empresas con expectativas desfavorables para el semestre entrante es mayor que el número de empresas con expectativas favorables.

Concretamente dicho saldo ha sido de -9 puntos en la presente edición: el 20% de las empresas consultadas ha indicado que las expectativas son favorables y el 30% que son desfavorables. La mitad de las empresas ha indicado que las expectativas son normales. Este porcentaje se mantiene alrededor del 50%, de edición a edición.


Aunque en general predomine la visión pesimista, la situación varía por sectores. Así en los sectores Artes visuales, Libro y Música el saldo ha sido negativo (con -33 puntos, -31 puntos y -10 puntos, respectivamente) y en Audiovisuales y Artes escénicas ha sido positivo (18 puntos y 9 puntos, respectivamente).

Las expectativas para el primer semestre de 2019 son más positivas que las expectativas para el primer semestre de la pasada edición (y más positivas que las expectativas de hace tres ediciones).

Aurreikuspen saldoa - Saldo de expectativas



Aurreikuspenak - Expectativas



Aurreikuspenen balantzea – Balance de expectativas: I/2019

| | Arte eszenikoak/ Artes escénicas | Ikus- entzunezkoak/ Audiovisual | Ikusizko arteak/ Artes visuales | Liburugintza /Libro | Musika/ Música | Guztira/ Total |
|----------------------------------|---|---------------------------------------|--|------------------------|-------------------|-------------------|
| Baikorra/Favorable (%) | 27,3 | 27,3 | 0,0 | 6,3 | 30,0 | 20,3 |
| Normala/Normal (%) | 54,5 | 63,6 | 66,7 | 56,3 | 30,0 | 50,0 |
| Ezkorra/Desfavorable (%) | 18,2 | 9,1 | 33,3 | 37,5 | 40,0 | 29,7 |
| Saldoa (puntuak) /Saldo (puntos) | 9,1 | 18,2 | -33,3 | -31,3 | -10,0 | -9,4 |
| Saldoa/Saldo I/2017 | -25,0 | 16,7 | 0,0 | -5,9 | -31,6 | -12,3 |
| Saldoa/Saldo II/2016 | 38,5 | 45,5 | -20,0 | 33,3 | 15,8 | 27,3 |
| Saldoa/Saldo I/2016 | -23,1 | -16,7 | 16,7 | -5,6 | -15,8 | -11,8 |
| Saldoa /Saldo II/2015 | -15,4 | 36,4 | 0,0 | -5,9 | -15,0 | -3,1 |
| Saldoa /Saldo I/2015 | 0,0 | 30,8 | 0,0 | -11,1 | -35,0 | -7,1 |

Iturria-Fuente: Siadeco, 2019.


Lehen seihilekorako espektatibak aurreko edizioetan lehen seihilekorako zituzten espektatibak baino baikorragoak izateaz gain, salmenten inguruko espektatibak ere positiboagoak dira. EAE mailako, Estatuko zein atzerriko salmentak igo egingo direla dioten enpresen ehunekoek gora egin dute panelaren aurreko ediziotik (% 18 eta % 23 artean kokatzen dira aldagai horiek igoko direla dioten enpresen ehunekoak).

Enpleguari dagokionean, 2019ko lehen zatian enplegua mantenduko dela diotenen portzentajeak gora egin du (% 85 da). Eta kosteei dagokienean kosteak igotzea aurreikusten dutenenak ere bai: enpresen laurdenak baino gehiagok (% 26) kosteak igotzea aurreikusten du.

Las expectativas en cuanto a las ventas para el primer semestre del 2019 también son más positivas que las de la pasada edición. Los porcentajes de empresas que han indicado que las ventas tanto a nivel de la CAE, estatales y al extranjero van a aumentar han sido superiores (se sitúan entre el 18% y el 23%).

En cuanto al empleo, aumenta el porcentaje de empresas que ha respondido que se mantendrá el empleo (85%). También aumenta el porcentaje de empresas que prevé que aumenten los costes (26%).

Aldagaien bilakaera - Evolución de los indicadores



Iturria-Fuente: Siadeco, 2019.

Enpresa Konfiantza Adierazlea (EKA) eta Enpresa Konfiantza Adierazle Armonizatua (EKAA)

EAEko Arte eta Kultura Industrien 2019ko lehen seihilekoko Enpresa Konfiantza Adierazlea 5,5 puntukoa da. Berriz ere adierazlea balio positiboetara itzuli da, enpresek jardueran aurrerapenak ikusten dituztenaren seinale. EKA adierazlearen balioa positiboa izatean eragina izan du enpresek egoeraz egin dituzten balorazio positiboek.

Enpresa Konfiantza Adierazle Armonizatuaren balioa 105 puntukoa izan da 2019ko lehen seihilekokoan. Aurreko ediziotik igoera bat eman da adierazle honetan, inoiz lortutako bigarren balio positiboenean kokatuz.

EKA adierazlearen sektorekako azterketa eginda, ikus daiteke aurreikuspenetako joera bera mantentzen dela: Ikusizko Arteak, Liburugintza eta Musika sektoreak izan dira EKA balio negatiboak izan dituzten hiru sektoreak, Liburugintzarena izanik ezkorren agertu dena (-22 puntuko EKArekin). Sektore honek 2018ko bigarren seihilekokoaren egoeraz zein 2019ko lehen seihilekorako aurreikuspenen inguruan egindako balorazio negatiboak izan dira emaitza horren erantzule. Panelaren aurreko edizioan hasitako beharazko joerak jarraipena izan duela esan daiteke, balorazio negatiboek pisua irabazi dutelarik gainera sektorean.

EKA balio positiboak izan dituzte Arte eszenikoak sektoreak (47 puntu) eta ikus-entzunezkoak sektoreak (23 puntu). Aipagarri da Arte eszenikoetan EKA adierazleak sektore guztietan inoiz izan duen balio positiboena duela edizio honetan.

Indicador de Confianza Empresarial (ICE) e Índice de Confianza Empresarial Armonizado (ICEA)

El Indicador de Confianza Empresarial del primer semestre del 2019 de las Artes e Industrias Culturales de la CAE es de 5,5 puntos. El indicador vuelve a tener valores positivos, señal de que se ven progresos en la actividad empresarial. Inciden directamente en el indicador ICE las valoraciones positivas que han realizado en cuanto a la situación de las empresas en el segundo semestre del 2018.

El valor obtenido para el Índice de Confianza Empresarial Armonizado (ICEA) es de 105 puntos para el primer semestre de 2019. Respecto a la pasada edición este indicador ha aumentado, obteniendo el segundo valor más elevado de todas las ediciones del panel.

Analizando los valores obtenidos para el indicador ICE en distintos sectores se mantiene la misma tendencia que en cuanto a las expectativas: Artes visuales, Libro y Música obtienen valores negativos, siendo el más negativo el indicador del sector del Libro (con -22 puntos). Las valoraciones negativas respecto a la situación del segundo semestre del 2018 y las expectativas para el primero del 2019 han hecho que dicho índice obtenga este resultado tan negativo. Se puede decir que la tendencia negativa iniciada en la pasada edición del panel tiene continuidad en esta edición para este sector.


Han obtenido valores positivos para el ICE el sector de las Artes escénicas (47 puntos) y el sector de Audiovisuales (23 puntos). El valor del ICE obtenido en el sector de las Artes escénicas, es el valor más positivo obtenido para este indicador en todas las ediciones del panel.

| Enpresa Konfiantza – Confianza Empresarial: I/2019 | | | | | | |
|---|-------------------------------------|-----------------------------------|------------------------------------|------------------------|-------------------|-------------------|
| | Arte eszenikoak/ Artes escénicas | Ikus-entzunezkoak/ Audiovisual | Ikusizko arteak/ Artes visuales | Liburugintza/ Libro | Musika/ Música | Guztira/ Total |
| Enpresa Konfiantza Adierazlea (EKA) – Indicador Confianza Empresarial (ICE) ¹ | 46,6 | 22,7 | -2,8 | -21,8 | -2,6 | 5,5 |
| Enpresa Konfiantza Adierazle Armonizatua (EKAA) – Indicador Confianza Empresarial Armonizado (ICEA) | 118,8 | 99,9 | 108,0 | 89,2 | 116,2 | 105,0 |

Iturria-Fuente: Siadeco, 2019.

¹ EKA -100 eta 100 artekoa da: balio positiboek jardueran aurrerapenak adierazten dituzte eta balio negatiboek atzerapenak. El ICE varía entre -100 y 100: valores positivos indican avances, mientras que datos negativos señalan retrocesos de la actividad.

Empresa Konfiantzaren bilakaera - Evolución de la Confianza Empresarial (2015/I - 2019/I)




Iturria-Fuente: Siadeco, 2019.

| Agente mota Tipo de agente | 2015/I - 2016/II | | | | 2018/II - 2019/I | | | |
|---------------------------------------|------------------|----------------|----------------|----------------|----------------------|---------------------------------|---------|---------------|
| | EKAA/ /ICEA | EKAA/ /ICEA | EKAA/ /ICEA | EKAA/ /ICEA | Egoera /Situación | Aurreikuspenak /Expectativas | EKA/ICE | EKAA/ICE A |
| Antzerkia-Teatro | 89,0 | 85,1 | 108,5 | 97,3 | 90,0 | 0,0 | 40,8 | 112,8 |
| Dantza-Danza | 129,1 | 100,0 | 111,8 | 122,5 | 100,0 | 100,0 | 100,0 | 173,2 |
| Arte eszenikoak-Artes escénicas | 94,3 | 87,1 | 109,2 | 100,8 | 90,9 | 9,1 | 46,6 | 118,8 |
| Zinema-Cine | 70,9 | 73,4 | 89,9 | 100,3 | 25,0 | 25,0 | 25,0 | 90,5 |
| Dokumentala-Documental | 100,0 | 77,5 | 100,0 | 100,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 89,4 |
| Publizitatea-Publicidad | 81,6 | 100,0 | 100,0 | 57,7 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 81,6 |
| Telebista-Televisión | 134,4 | 100,8 | 151,2 | 126,0 | 66,7 | 33,3 | 49,4 | 125,7 |
| Especializatu gabeak-No especializ. | 100,0 | 96,8 | 111,8 | 96,8 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 100,0 |
| Ikus-entzunezkoak-Audiovisual | 97,5 | 87,7 | 108,0 | 102,6 | 27,3 | 18,2 | 22,7 | 99,9 |
| Arte-galeria-Galería de arte | 114,9 | 109,2 | 86,9 | 103,9 | 33,3 | -33,3 | -2,8 | 108,0 |
| Ikusizko arteak-Artes visuales | 114,9 | 109,2 | 86,9 | 103,9 | 33,3 | -33,3 | -2,8 | 108,0 |
| Argitaletxea-Editorial | 96,1 | 103,8 | 103,2 | 88,4 | -16,7 | -16,7 | -16,7 | 84,6 |
| Liburu-denda-Librería | 104,3 | 114,0 | 119,5 | 99,9 | -9,1 | -40,0 | -25,2 | 91,5 |
| Liburugintza-Libro | 101,5 | 110,4 | 114,0 | 95,7 | -11,8 | -31,3 | -21,8 | 89,3 |
| Sustatzaile pribatua-Promotor privado | 118,2 | 106,9 | 126,0 | 126,0 | 25,0 | 25,0 | 25,0 | 113,4 |
| Kontzertu aretoa-Sala de conciertos | 94,9 | 115,5 | 121,1 | 94,3 | 0,0 | 40,0 | 19,1 | 115,5 |
| Diskoetxea-Discográfica | 89,4 | 105,4 | 118,6 | 98,6 | 60,0 | 0,0 | 28,0 | 120,2 |
| Disko saltokia-Comercio del disco | 106,9 | 100,0 | 125,4 | 100,0 | -50,0 | -83,3 | -67,7 | 113,4 |
| Musika-Música | 101,2 | 106,8 | 122,3 | 103,7 | 5,0 | -10,0 | -2,6 | 116,1 |
| Guztira - Total | 99,9 | 100,2 | 111,8 | 100,9 | 21,5 | -9,4 | 5,5 | 105,0 |

Iturria-Fuente: Siadeco, 2019.

Enpresa Konfinatza Adierazle Armonizatuaren bilakaera - Evolución de la Confianza Empresarial Armonizado (2015/II - 2019/I)



Iturria-Fuente: Siadeco, 2019.

Enpresa jardueran eragiten duten faktoreak

Enpresa jardueran eragiten duten faktoreen artean, ekoizpen gastuak seinatu dituzten enpresen ehunekoak gailendu da edizio honetan. Arte eta Kultura Industrien enpresa establezimenduetako arduradunen laurdenak baino gehiagok (% 27) faktore horri egotzi dio negozioak izan duen bilakaera.

Oso gertutik jarraitzen dio eskariaren jaitsierak: % 26 izan dira faktore hau ere aipatu dutenak. Atzetik jarraitzen diete finantziario edo tesoreria arazoak (% 12) eta gastu fiskalek (% 11).

Bestelako faktore batzuk ere aipatu dituzte enpresek beraien jardueran eragin zuzena duten faktore modura. Jarraian, sektore desberdinetan aipatu direnak zerrendatzen dira:

Arte eszenikoak:

Sektoreak panelaren edizio honetan erakutsi duen joera positiboaren harira, aipatu diren bestelako faktoreak ere oro har positiboak izan dira:

- Eskariaren aldetik egon den igoera.
- Salmenta bidezko diru-sarreraren igoera emateko aukera izan dutela, alegia, sarrerek garestiago saltzeko aukera egon dela.

Ikus-entzunezkoak:

- Alderdi edo faktore positiboak dagokienean, beraien jardueraren zein puntutan aurkitzen diren paneleko edizio bakoitzean faktore erabakigarria da erantzunezko dagokienean. Honela, edizio honetan filmak egitea

Factores limitadores de la actividad empresarial

Entre los distintos factores que inciden en la actividad empresarial, los costes de producción es el factor que más señalan los responsables de las empresas de las Artes e Industrias Culturales consultadas. Este factor es señalado por más de una cuarta parte de las empresas (27%).

Le sigue muy de cerca el descenso de la demanda: 26 %. Después están los problemas de financiación o tesorería (12%) y los gastos fiscales (11%).

Además de estos factores principales que inciden en la marcha del negocio, las empresas también han indicado otro tipo de factores que les afectan directamente. A continuación se recogen los distintos factores indicados, por sector:

Artes escénicas:

En relación a la tendencia positiva que ha demostrado el sector en esta edición del panel, los otros factores que se mencionan son positivos en general:

- Aumento de la demanda
- Posibilidad de incrementar los ingresos por ventas, es decir, posibilidad de vender a precio más elevado las entradas.

Audiovisuales:

- En lo que se refiere a factores positivos, el momento de actividad en el que se encuentran a la hora de responder al panel es un factor decisivo en cuanto a las respuestas. Así, una de

bukatu izanak positiboki eragin diela aipatu du enpresaren batek.

- Sektoreak kompetentziak gora egin duela ere aipatu da faktore negatibo modura.

Liburugintza:

- Liburugintza kontsumitzeko moduan egon diren aldaketak aipatzen dira.
- Digitalizazioak eragindako aldaketa handia izan dela ere aipatzen da.
- Erosteke moduaren aldaketa ere negatiboki eragiten duela diote (online salmentek).
- Gainera, urtez urteko salmenten jaitsierari kostuen igoera gehitu behar zaiola, emaitza negatiboak indartuz.

Musika:

- Musika kontsumitzeko moduaren aldaketa: euskarri fisikoen galera, streaming bidezko entzuketak...
- Musika salmentarako kompetentzia: batez ere internet bidezko salmenta (Amazon...).
- Ekoizpenak garestitu izana.

las empresas ha destacado que la finalización de la realización de películas incide en que las respuestas sean más positivas.


- También se ha citado como factor negativo el incremento de la competencia del sector.

Libro:

- Se señalan cambios en la manera de consumir.
- La digitalización incide mucho en el sector.
- Cambios en la manera de comprar (ventas online).
- Al descenso de ventas que sufren año tras año hay que sumarle el aumento de los costes. Esto hace que los resultados sean cada vez más negativos.

Música:

- Cambio en la manera de consumir la música: pérdida del soporte físico, streaming...
- Competencia en las ventas: sobre todo en las ventas a través de internet (Amazon...).
- Encarecimiento de las producciones



Iturria-Fuente: Siadeco, 2019.

**Enpresa jardueran eragiten duten faktoreak -
Factores que limitan la actividad empresarial II/2018**

| | Arte eszenikoak/ Artes escénicas | Ikus-entzunezkoak/ Audiovisual | Ikusizko arteak/ Artes visuales | Liburugintza/ Libro | Musika/ Música | Guztira/ Total |
|---|-------------------------------------|-----------------------------------|------------------------------------|------------------------|-------------------|-------------------|
| Ekoizpen gastuak/Costes de producción (%) | 31,3 | 31,3 | 20,0 | 16,0 | 32,3 | 26,5 |
| Eskariaren jaitsiera/Descenso de la demanda (%) | 37,5 | 31,3 | 30,0 | 32,0 | 9,7 | 25,5 |
| Finantziazio/tesoreria arazoak Insuficiente financiación/tesorería (%) | 0,0 | 18,8 | 10,0 | 12,0 | 16,1 | 12,2 |
| Gastu fiskalak/Costes fiscales (%) | 6,3 | 6,3 | 30,0 | 4,0 | 16,1 | 11,2 |
| Bestelakoak/Otros (%) | 25,0 | 12,5 | 10,0 | 36,0 | 25,8 | 24,5 |

Iturria-Fuente: Siadeco, 2019.


Giza baliabideak

Arte eta Kultura Industrietako establezimenduetan guztira 712 lanpostu daude guztira eta erdia baino gehiago gizonezkoak dira (% 54). Ardura postuak dituzten langileak 144 dira, eta postu horietan emakumeen presentzia are baxuagoa da (% 39).


Recursos humanos

Según la información recopilada, hay 712 puestos de trabajo en los establecimientos que conforman el panel de las Artes e Industrias Culturales, y más de la mitad son hombres (54 %). El número de personas que ocupa cargos de responsabilidad es de 144, y el porcentaje de mujeres es todavía menor: 39 %.

Enpresako langile kopurua -
Personal de la empresa



Ardura postuak dituzten langile kopurua -
Personal con cargos de responsabilidad



Emakumezkoak
Gizonezkoak

Iturria-Fuente: Siadeco, 2019.

Langile kopurua guztira eta ardura postuak dituzten langile kopurua -
Personal total y personal con cargos de responsabilidad II/2018

| | | Arte eszenikoak/ Artes escénicas | | Ikus-entzunezkoak/ Audiovisual | | Ikusizko arteak/ Artes visuales | | Liburugintza/ Libro | | Musika/ Música | | Guztira/ Total | |
|--|---------------|-------------------------------------|-------|-----------------------------------|-------|------------------------------------|-------|------------------------|-------|-------------------|-------|-------------------|-------|
| | | Kop./ Cant. | % | Kop./ Cant. | % | Kop./ Cant. | % | Kop./ Cant. | % | Kop./ Cant. | % | Kop./ Cant. | % |
| Enpresako langileak/ Personal empresa | Em./Muj. | 29 | 57,1 | 100 | 57,1 | 8 | 42,9 | 95 | 56,1 | 94 | 39,7 | 325 | 45,7 |
| | Giz./Hom. | 22 | 42,9 | 138 | 42,9 | 10 | 57,1 | 74 | 43,9 | 143 | 60,3 | 387 | 54,3 |
| | Guztira/Total | 51 | 100,0 | 238 | 100,0 | 18 | 100,0 | 169 | 100,0 | 237 | 100,0 | 712 | 100,0 |
| Ardura postuak/ Cargos responsables | Em./Muj. | 13 | 52,0 | 10 | 30,3 | 6 | 60,0 | 18 | 52,0 | 10 | 23,8 | 57 | 39,3 |
| | Giz./Hom. | 12 | 48,0 | 23 | 69,7 | 4 | 40,0 | 16 | 48,0 | 32 | 76,2 | 87 | 60,7 |
| | Guztira/Total | 25 | 100,0 | 33 | 100,0 | 10 | 100,0 | 34 | 100,0 | 42 | 100,0 | 144 | 100,0 |

Iturria-Fuente: Siadeco, 2017.

Arte eszenikoak, Ikus-entzunezkoak eta Liburugintza sektoreetan langileen artean altuagoa da emakumeen presentzia gizonezkoena baino (% 57, % 57 eta % 56, hurrenez hurren).

Ardura postuei dagokienean berriz, Ikusizko arteetan altuagoa da ardura postuak dituzten emakumeen portzentsua gizonezkoena baino (10etik 6 emakumezkoak dira ardura postuetan). Liburugintzan eta Arte eszenikoetan nahiko orekatua da banaketa, bi kasuetan hala ere emakumezkoen portzentsua zertxobait altuagoa izan arren (%52koa bietan).

Azkenik, Ikus-entzunezkoetan eta Musikan ardura postuak dituzten langileen artean gizonezkoak gailentzen dira (% 70 eta % 76), Ikus-entzunezkoen kasuan langile gehiago izan arren emakumezkoak.

Artes escénicas, Audiovisuales y Libro son los sectores en los que el porcentaje de mujeres en el personal de la empresa supera al de los hombres (57%, 57% y 56%, respectivamente).

En cuanto a cargos responsables, en Artes Visuales el porcentaje de mujeres con cargos responsables es mayor que el de los hombres (6 de cada 10 cargos responsables son mujeres). En el sector del Libro y Artes escénicas la distribución es bastante equilibrada, aunque en ambos casos el porcentaje de mujeres sea algo mayor (52%).

Aunque en el caso del sector de Audiovisuales el número de mujeres sea más elevado que de hombres en cuanto al empleo total, prevalecen los hombres entre los cargos responsables (70%). En Música también hay más hombres con cargos responsables (76%).